# ALDERDI BERRIAK

2005eko OTSAILA • 3.zenbakia

## Europa gehiago... Euskadi gehiago.
## Más Europa. Más Euskadi.

EAJ PNV

"EAJK, ERAKUNDE SERIO ETA ESKARMENTU HANDIKOA DENEZ GERO, EUROPA MAILAN KOKATU DU EZTABAIDA ETA EZ ESPAINIA MAILAN. ETORKIZUNA EUROPA BAITA. IKUSPEGI HONETATIK, IRABAZTEKORIK DENA DUGU ETA GALTZEKORIK, ALDIZ, EZER EZ".

"EAJ-PNV, COMO ORGANIZACIÓN SERIA Y LARGA EXPERIENCIA, HA CENTRADO EL DEBATE EN CLAVE EUROPEA Y NO ESPAÑOLA. PORQUE EL FUTURO ES EUROPA. Y, DESDE ESTA PERSPECTIVA, TENEMOS TODO PARA GANAR Y NADA PARA PERDER".






www.eaj-pnv.com

# ALDERDI BERRIAK

2005eko OTSAILA

KOORDINATZAILEA
COORDINADOR
Jose Unzueta

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri “Amatiño”
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa

DIAGRAMAZIOA
DIAGRAMACION
EAJren Multimedia Departamendua

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

## AURKIBIDEA
## SUMARIO











..ETA ZER GALTZEKORIK EZ
TODO PARA GANAR... 03

IMAZEK URTEA BETE
UN AÑO CON IMAZ 04

DESDE EL FUTURO
DESDE EL FUTURO 06

NIK BAI
NIK BAI 07

EUROPAKO ALDERDI DEMOKRATAREN BATZORDE POLITIKOA BILBON BILDU DA
EL CONSEJO POLITICO DEL PARTIDO DEMOCRATA SE REUNE EN BILBAO 08

EAJ-PNB: HANDITU NAHI DUEN ANAI TTIPIA
EAJ-PNB: LE PETIT FRÈRE QUI A GRANDIR 10

EUROPA GEHIAGO... EUSKADI GEHIAGO
MAS EUROPA. MAS EUSKADI 12

www.eaj-pnv.com
www.eaj-pnv.com 18

AUTOGOBERNUA XXI. MENDERAKO
AUTOGOBIERNO PARA EL SIGLO XXI 19

LABURRAK
BREVES 23

# EDITORIALA

## Todo para ganar...

El 20 de febrero será el referéndum del Tratado Constitucional Europeo. EAJ-PNV ha pedido a sus afiliados y simpatizantes una posición activa y favorable.

EAJ-PNV es uno de los partidos europeos que más concienzudamente ha examinado los pros y contras del Tratado. Una comisión técnica lo estudió durante varios meses, se elaboró un dictamen y se aprobó por la Asamblea Nacional.

Desde que EAJ-PNV participó en la Conferencia de las Nacionalidades de Lausana (1916), hasta la Ponencia Política de Iruña (1977), pasando por la doctrina de Agirre y nuestra posición favorable a Maastricht (1991), Ámsterdam (1997) y Niza (2001), EAJ-PNV siempre se ha posicionado favorable a los pequeños pero continuos pasos en favor de la construcción europea.

Porque en su día se dijo SÍ a muchos y constantes pequeños pasos es por lo que ahora tenemos un espacio común, pero muy diverso, de 450 millones de habitantes con Parlamento, con moneda única y sin aduanas.

Como ocurrió con cuantos tratados se aprobaron previamente, tampoco es éste el que hubiera deseado EAJ-PNV, pero mejora la situación preexistente, merma la capacidad de los Estados y nos permite mayor posibilidad de maniobra en un campo de juego superior.

EAJ-PNV, como organización seria y larga experiencia, ha centrado el debate en clave europea y no española. En el ámbito cultural, lingüístico y competencial nuestra posición favorable coincide con la de los galeses, bretones, flamencos, alsacianos, corsos, occitanos y la mayoría de los partidos nacionalistas al norte de los Pirineos. Y, en el aspecto social, coincidimos con el apoyo explícito de la Confederación Europea de Sindicatos.

Estamos en el buen camino. Porque el futuro es Europa. Y, desde esta perspectiva, tenemos todo para ganar y nada para perder.



## ...eta zer galtzekoak ez

Otsailaren 20an izango da Europako Konstituzio Itunaz erreferenduma. EAJk baiezko jarrera eraginkorra eskatu die jelkide, jeltzale eta gainerako jarraitzaileei.

EAJ da Itunaren aldeko eta kontrako arrazoiak sakonen ikertu dituzten alderdi europarretako bat. Batzorde teknikoak hainbat hilabetez ikertu zuen testua, txostena burutu zen eta Aberri Batzarrak onartu.

Lausanako Nazioen Biltzarretik (1916) Iruñeko Txosten Politikora (1977), Agirreren doktrina tarteko, EAJren Maastricht (1991), Amsterdam (1997) eta Nizaren (2001) aldeko jarrerak behin eta berriz nabarmendu izan dira europagintzaren ahaleginetan, emeki-emeki eta urratsez urrats, baina beti ere etenik gabe.

Egunak joan eta egunak etorri, erabaki behar ahala, urrats txiki bezain ugariei BAIETZ esaten asmatu genuelako, indarrean dugu gaur egun 450 milioi biztanleko eremu bateratu eta anitza, Legebiltzarraz, moneta bakarraz eta aduanarik gabe.

Garai bakoitzean onartu ziren itun guztiekin gertatu izan zen bezalaxe, honako hau ere ez da EAJk gustukuen duen testua, baina aurreko egoera hobetzen du, Estatuen gaitasuna murrizten du eta ahalmen eta aukerabide gehiago eskaintzen digu askoz ere joko-eremu handiagoan.

EAJk, erakunde serio eta eskarmentu handikoa denez gero, Europa mailan kokatu du eztabaida eta ez Espainia mailan. Kultura, hizkuntza eta eskumenei dagokien aldetik, gure erabakia bat dator galestarrek, bretoiek, flandriarrek, alsaziarrek, saboiarrek zein okzitanoek eta, bataz beste, Pirinioen iparraldetik gorako alderdi abertzalerik gehienek hartutako erabakiarekin. Eta arlo sozialean, berriz, bat gatoz Europako Sindikatuen Konfederazioaren jarrerarekin.

Bide onetik goaz. Etorkizuna Europa baita. Ikuspegi honetatik, irabaztekorik dena dugu eta galtzekorik, aldiz, ezer ez.

# IMAZek URTEA BETE



Euskalduna Jauregia EAJren Batzar Nagusiaren egoitza izan zen. Bertan, 2.500 alderdikideren aurrean izendatu zen Josu Jon Imaz EBBren Lehendakari



Euzkadi Buru Batzar. Reunión del EBB con los portavoces parlamentarios de EAJ/PNV en Madrid y en Gasteiz.



2004ko Aberri Eguna . Josu Jon Imazen lehen Aberri Eguna EBBren Lehendakari gisa eta Bilboko Erakustazoka zaharrean ospatutako azkena



Intervención de Josu Jon Imaz ante la Asamblea Nacional de EAJ/PNV.



Bigarren aldiz Forondako zelaiak gure Alderdiaren jaialdi handia hartu zuen. Josu Jon Imazen lehen Alderdi Eguna izan zen Euzkadi Buru Batzarraren lehendakari gisa. Foronda, ospakizun honetarako behin betiko egoitza izango da



Firma del Acuerdo de Coalición con Eusko Alkartasuna. Para nuestro partido más que un pacto puntual es un acuerdo estratégico y de futuro para Euskadi y para el Nacionalismo vasco



Josu Jon Imaz eta Joseba Aurrekoetxea Legebiltzarrean abenduaren 30ean. Bilkura honetan Euskadiko Estatutu Politikoaren proposamena erabateko gehiengoz onartu zen



Acto de conmemoración del centenario del Batzoki de Bergara



2004ko Gudari Eguna . Guda Zibilean borrokatu ziren euskal batailoietako gudariak omentzeko ekitaldia. EBBren lehendakariak ikurriña eman zion Sabin Etxeko ekitaldira joan zen gudari bati.



Congreso del Partido Demócrata Europeo en Bilbao. EAJ/PNV ha sido uno de los grupos fundadores de este nuevo partido europeo que cuenta entre sus filas con personalidades como Romano Prodi o Francesco Rutelli

# DESDE EL FUTURO

Es seguro que cuando Josu Legarreta se propuso escribir el ensayo Desde el futuro. Nacionalismo es más democracia, no era consciente de la movida que iba generar la propuesta del Estatuto Político de la Comunidad de Euskadi y, desde luego, no podía imaginar que un 20 de febrero de 2005 se iba a dirimir en refrendo popular el Tratado Constitucional Europeo. Sin embargo, es difícil que el lector encuentre en el mercado una publicación que ofrezca un corpus ideológico que responda mejor a la coyuntura actual.




Prácticamente todos los fundamentos de las ideas, valores y planteamientos políticos que actualmente se presentan como progresistas y modernos, los planteó la generación de Agirre, Landaburu e Irujo hace ya más de medio siglo. Nación cívica y comunidad nacional; pluralidad y solidaridad internacional; el ser humano como valor supremo y eje de toda reivindicación política; soberanía compartida e interdependencia, en una Europa sin fronteras. Todo ello estaba ya formulado por los líderes de EAJ-PNV a partir de la década de los cuarenta y cincuenta.

Se ha utilizado con frecuencia el eslogan "Katea ez da eten" para incidir en la idea de que nunca llegó a producirse una ruptura generacional. Sin embargo, el hecho de que algunas de las propuestas más significativas de la generación de Agirre se nos descubran ahora como innovadoras nos lleva a pensar lo contrario. La dictadura de Franco, el exilio, cuarenta largos años en ausencia de democracia y la violencia de ETA no han favorecido un discurso constante y continuado.

Sin embargo, cincuenta años más tarde, todo es más posible que nunca. Tanto más cuando las ideas de Agirre, Landaburu e Irujo ya no son privativas de EAJ-PNV, sino que gozan de una aceptación social generalizada.

Luis Aranberri

Seguru gero, Josu Legarretak ekin zionean "Desde el futuro. Nacionalismo es más democracia" liburua idazteari, ez zuela inondik ere sumatzen Euskadiko Estatutu Politiko berriak eragingo zuen iskanbila eta, edozelan ere, ez zuela batere uste 2005eko otsailaren 20an Europako Konstituzio Itunaren erreferenduma izango zenik. Hala ere, nekez aurkituko du irakurleak beste argitalpenen bat, gaur eguneko egoerari Legarretaren saiakerak bezain ondo erantzungo dion 'corpus" ideologikorik.

Izan ere, gaur egun aurrerakoi eta modernotzat azaltzen diren ideia, balore eta ekarririk gehienen oinarriak Agirre, Landaburu eta Irujoren belaunaldiak landu zituen orain mende erdi: nazio zibikoa eta nazio-komunitatea; aniztasuna eta nazioarteko elkartasuna; gizakia balorerik nagusitzat eta edozein aldarri politikoren ardatz; burujabetza konpartitua eta interdependentzia, mugarik gabeko Europan. Hori guztia asmatua zegoen EAJ-PNVren buruzagiei esker, 1940 eta 1950eko hamarkadetatik aurrera.

Sarri aipatu izan da "Katea ez da eten" leloa, txarrenean ere ez zela sekula belaunaldien arteko hausturarik gertatu aditzera emateko. Hala ere, Agirreren belaunaldiak egin zituen aldarrikapenak gaur egun berriak iruditzen baldin bazaizkigu... ez ote da gero izango ukatu nahi dugun haustura hori neurriren batean gertatu zelako? Zer gerta ere, zalantzarik ez Francoren diktadura, erbesteratu beharra, demokraziarik gabeko berrogei urte luzeak eta ETAren indarkeria ez direla, ez, Agirreren doktrina indartzeko eta suspertzeko baratzik onenak izan.

Baina, berrogeita hamar urte geroago, denboraz gaude oraindik ere. Are gehiago kontuan izanda Agirre, Landaburu eta Irujoren ideiak ez direla honez gero EAJ-PNVrenak soilik, euskal gizarteak gehienbat bereganatu izan dituen irizpideak baino.

Luis Aranberri

# NIK BAI







**Hace 25 años la mayoría de la sociedad vasca apostó por el Estatuto de Autonomía de Gernika y nadie pone en cuestión que uno de los motores determinantes de aquella apuesta fue EAJ-PNV.**

Veinticinco años más tarde, el Estatuto no solamente está pendiente de ser completado en términos de transferencias sino que, incluso, el ejercicio de las competencias ya asumidas se ha visto recortado por el Gobierno central. Esta situación ha llevado a EAJ-PNV a plantear que la sociedad vasca tiene derecho a un Nuevo Estatuto Político que mejore la convivencia y amplíe el autogobierno.

Al margen de los procesos de divulgación social que requiera el Nuevo Estatuto Político, EAJ-PNV emprendió en el mes de octubre del 2004 una campaña de información interna entre sus afiliados y simpatizantes, desde el convencimiento de que todos ellos fueron, y van a serlo de nuevo, impulsores activos del cambio.

Hasta el momento la campaña contempla dos fases. Una primera, de carácter interno, en la que se ha recuperado el eslogan EUSKADIK BEHAR ZAITU y con el que se han realizado más de doscientas charlas informativas. La segunda fase, ha empezado en enero y girará en torno a un apoyo más explícito; NIK BAI. Con este slogan retomamos la idea del SI al Estatuto de Gernika de hace 25 años.

**Duela 25 urte euskal gizartearen gehiengoak Gernikako Autonomi Estatutuaren alde egin zuen eta inortxok ere ez du zalantzan jartzen EAJ izan zela apustu haren alde egin zuen motorerik handienetarikoa.**

Baina, hogeita bost urte beranduago, Estatutua osotasunez bete gabe dago oraindik eta berenganatutako eskumenen artean ere, Estatutuko gobernuak ezarritako neurriek murriztuak izan dira. Egoera honek EAJ-PNV zerbait berria planteatzera eraman du, hau da, euskal gizarteak Estatutu Politiko Berria izateko eskubidea duela, bizikidetasuna hobetuko duena, autogobernua zabaldu eta hiritar guztiontzako ongizatea handituko duena.

Estatutu Politiko Berriak beharko dituen gizarte zabalkunderako prozesuetaz aparte, EAJ-PNVk urrian alderdikide eta lagunentzako alderdi barruko kanpaina hasi zuen. Alderdiak jakin badaki haiek izan zirela garai hartan eta oraingoan ere izango direla aldaketarako motorea.

Kanpaina honek bi fase izango ditu momentuz. Lehenengoa, EUSKADIK BEHAR ZAITU lelopean joan da eta honetan berrehun baino hitzaldi gehiago eman dira. Urtarrilean bigarren faseari ekin genion eta hemen NIK BAI lemarekin orain dela 25 urteko Gernikako Estatuturako BAI bera berreskuratu nahi izan da.

# EL CONSEJO POLITICO DEL PARTIDO DEMOCRATA EUROPEO SE REUNE EN BILBAO



Europako Alderdi Demokrataren bilera Sabin Etxean

**La primera reunión del Consejo Político del Partido Demócrata Europeo (PDE), en el que está integrado EAJ-PNV, se ha celebrado en Bilbao los días 5 y 6 de febrero. Josu Jon Imaz, ha manifestado ante los participantes en este foro que "la apuesta del Partido Nacionalista Vasco es que haya un Sí masivo en Euskadi a favor del Tratado Constitucional Europeo".**

En el encuentro han estado presentes delegaciones de los siete partidos que componen el PDE. La Margherita de Italia; Unión para la Democracia francesa de Francia; Partido Laborista de Lituania; Movimiento Ciudadano para el Cambio de Bélgica; Vía de Cambio de la República Checa y Nuevos Horizontes de Chipre, han trabajado junto a EAJ-PNV en este Consejo Político.

Durante las jornadas, se han debatido temas relacionados con la organización interna del PDE, así como la designación de Chipre para acoger en mayo el próximo Consejo Político y uno posterior en Lituania en septiembre. El lehendakari Ibarretxe mantuvo un encuentro con los participantes en la Casa de Juntas de Gernika.

Entre los invitados destacó la presencia de Francesco Rutelli, ex alcalde de Roma y presidente de La Margherita, que afirmó

**Europako Alderdi Demokrataren (EAD) Batzorde Politikoaren lehen bilera, EAJ ere kidea delarik, Bilbon izan da otsailaren 5 eta 6an. Josu Jon Imazek parte hartzaile guztien aurrean aditzera eman duenez "Euzko Alderdi Jeltzalearen apustua da, Euskadin Europar Konstituzio Itunaren aldeko Baietza nagusi izan dadin".**

Topaketan EAD alderdia osatzen duten zazpi alderdietako delegazioak izan dira: Italiako La Margherita; Frantziako Frantziar Demokraziarako Batasuna; Lituaniako Alderdi Laborista; Belgikako Aldaketarako Mugimendu Hiritarra, Txekiar Errepublikako Aldaketa Bidea eta Txipreko Etorkizun Berriak alderdia. Hauek guztiak izan dira EAJren ondoan Batzorde Politiko honetan.

Jardunaldietan EADren barne antolaketaren gaineko gaiak aztertu dira, besteak beste, hurrengo Batzorde Politikoa maiatzean eta Txipren izango delako erabakia hartzea, eta ondorengoa Lituanian eta irailean. Ibarretxe Lehendakaria kide guztiekin egon zen Gernikako Batzar Etxean.

Gonbidatuen artean Francesco Rutelli Erromako alkate ohia eta La Margherita alderdiaren presidentea izan zen. Honek



Francesco Rutelli y Josu Jon Imaz en la Casa de Juntas de Gernika

que "el PDE respalda al postura del PNV ante el próximo referéndum del Tratado Constitucional Europeo".

"Los vascos tenemos que apostar por el Sí, porque ese voto nos va a permitir ser más Europa, pero también más Euskadi", ha indicado Imaz para subrayar el posicionamiento del PNV de cara al 20 de febrero.

El presidente del EBB y así mismo vicepresidente del PDE, también declaró en la reunión del Consejo Político que "los vascos siempre hemos sido europeístas. Hemos estado a favor de esta Europa que se está construyendo sin fronteras. Hemos estado durante siglos divididos por el Bidasoa y necesitamos de una Europa unida para reencontrarnos".

Josu Jon Imaz, añadió que "nuestra mejora en la calidad de vida en los últimos quince años no hubiera sido posible sin el proyecto europeo. Desde EAJ-PNV y desde el PDE decimos Sí a Europa, aportando nuestra personalidad y fomentando nuestro autogobierno contribuiremos a la construcción de una nueva Europa".

"Tiene que ser el Sí de todos y cada uno de nosotros el que empuje el proyecto en la dirección correcta. De nada valdrá arrepentirse al día siguiente del 20 de febrero por el hecho de haber tenido una abstención que ponga en riesgo el proyecto europeo", precisó el presidente jeltzale.

## Posición favorable de la Asamblea Nacional

Por su parte, el lehendakari Juan José Ibarretxe, solicitó a las delegaciones del Partido Demócrata Europeo que visitaron la Casa de Juntas de Gernika que "este partido se consolide, porque Europa necesita un punto de equilibrio entre el PP y el Partido Socialista para continuar desarrollándose. El PDE debe ser un instrumento de importancia y calado, porque representa el respeto a los pueblos, a las personas, a las ideologías, a las identidades y a las lenguas".

Respecto al euskera, Ibarretxe pidió a los representantes del PDE su ayuda para conseguir que "el idioma vasco, el más antiguo de Europa, sea considerado como lengua oficial en la Unión Europea, y de esta manera hacer posible que los vascos puedan mantener sus relaciones con las instituciones europeas en euskera".

adierazi zuenez "EAD alderdiak EAJk Europar Konstituzio Itunaren gaineko erreferendumari begira duen jarrera onesten du".

"Euskaldunok Baietzaren aldeko apustua egin behar dugu, baietzak emango baitigu Europa gehiago eta Euskadi gehiago izateko aukera" esan du Imazek EAJk otsailaren 20ari begira duen jarrera azpimarratu nahirik.

EBBren lehendakari eta EADren lehendakari ordea denak Batzorde Politikoaren bileran adierazi zuenez "euskaldunok betidanik egin izan dugu Europaren alde. Mugarik gabe eraikitzen ari den Europa honen aldeko izan gara. Mendeetan zehar Bidasoa ibaiak zatituta egon gara eta Europa batuaren beharra dugu berriz elkartzeko".

Josu Jon Imazek gaineratu zuenez "azken hamabost urteotan lortu izan dugun ongizatea ez zatekeen egi bihurtuko europar egitasmorik gabe. EAJren aldetik eta EADren aldetik Europari Baietza eman nahi diogu, gure izaera eskainiz eta gure autogobernua bultzatuz Europa berriaren eraikuntzan lagunduko dugu-eta".

"Guztion Baietzak izan behar du egitasmoa bide onetik eramango duena. Alferrikakoa izango da otsailaren 20az geroztik damutzea europar egitasmoa arriskutan jarri duen abstentzioa mantentzeagatik" azpimarratu zuen lehendakari jeltzaleak.

## Aberri Batzarren baiezko jarrera

Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria bere aldetik, Gernikako Batzar Etxea bisitatu zuten Europako Alderdi Demokrataren ordezkariei eskatu egin zien "alderdi honek behar duen indarra har dezan, Europak PP eta Alderdi Sozialistaren arteko oreka behar baitu bere garapen prozesuak aurrera egingo badu. EAD alderdiak garrantzizko tresna izan behar du herri, pertsona, pentsamolde, nortasun eta hizkuntza guztiekiko begirunea islatzen baitu".

Euskarari buruz, Ibarretxek laguntasuna eskatu zien EADren ordezkariei "euskal hizkuntza, Europa osoko zaharrena izanik, Europar Batasunean hizkuntza ofizialtzat hartua izan dadin eta euskaldunek europar instituzioekiko harremanak euskaraz mantentzeko aukera izan dezaten".

# EAJ-PNB:

# HANDITU NAHI DUEN ANAI TTIPIA



Josu Jon Imaz Ipar Buru Batzarrarekin

**EAJ-PNB représente l'alderdi en Iparralde, depuis une décennie. Sa progression est régulière et solide, grâce à son positionnement particulier dans les grandes revendications de la société d'Iparralde.**

EAJ-PNB a renforcé son activité politique depuis 1996. Son travail a consisté à créer une nouvelle équipe en rassemblant les sympathisants. Peu à peu, l'alderdi s'est renforcé en Iparralde, en attirant de nouveaux adhérents et en créant des Herri Biltzar. Aujourd'hui, il y en a 5, la plupart sur la côte basque. L'alderdi continue à s'enraciner, avec une nouvelle génération et des militants expérimentés. L'Alderdi a gagné en notoriété, en étant présent dans les médias, en diffusant son mensuel Lema et en ouvrant son site : .

Concernant notre environnement, la société d'Iparralde a beaucoup évolué en 20 ans. Le sentiment identitaire est une réaction à la perte de l'euskara et à l'affaiblissement économique. Ces dernières années, l'alderdi a participé aux grandes revendications, en relançant le mouvement pro-département, en aidant la plateforme Batera, en soutenant la création d'une Chambre d'agriculture. Actuellement, l'alderdi est au cœur de ce mouvement moderne et populaire.

**EAJ-PNB, Iparraldean den alderdiaren ardatza, bizi laburra dauka. Bere garatze prozesua, emeki emeki bainan sendoki, jarraitzen du, Iparraldeko gizartearen aldarrikapen nagusietan bere boza entzunaraziz.**

EAJ-PNBk bere aktibitate politikoa azkartu du 1996az geroz. Bere lana izan da osatzea zinezko talde bat alderdizaleak bilduz. Apurka, apurka, alderdiak bere izaitea sendotu du Iparraldean, alderdikide berriak lortuz eta Herri Biltzarrak sortuz. Gaur, 5 herri biltzar badira, gehienak kostaldean. Alderdiak egituratze fasean jarraitzen du, belanauldi berri batekin eta aspaldiko militanteekin. Alderdiaren presentzia bermatu da, komunikabideetan agertuz, bere hilabetekaria, Lema hedatuz, bere web gunea :  zabalduz.

Testuinguruari begira, Iparraldeko gizartea asko mugitu da azken 20 urte hauetan. Euskalzaletasuna azkartuz doa, euskararen desagertze mehatxuak eta ekonomiaren ahultzeak ihardokitze bat sortuz. Azken urte hauetan izan diren aldarrikapen nagusietan parte hartu du aktiboki alderdiak, departamenduaren aldeko mugimendua arrapiztuz, Batera plataforman laguntza ekarriz, berrikitan laborantxa ganbararen aldeko sortzea sustengatuz. Gaur, gizarte mugimendu berritzaile eta azkar horretan murgildua da alderdia.



Lema aldizkariaren jaia

Mis cela n'est pas suffisant pour se singulariser, ce mouvement n'étant pas identifié à une formation politique, mais à un large courant euskalzale et abertzale.

Nous devons donc travailler notre identité propre. En terme d'image, nous sommes perçus comme un mouvement d'Hegoalde, avec ses points négatifs : celui d'être un parti de « l'autre côté », et pas assez « d'ici », mais aussi ses points positifs : l'alderdi a une bonne image dans de nombreux mouvements sociaux, par exemple.

En nous appuyant sur notre personnalité, nous voulons donc utiliser nos forces. D'essence et de réalité transfrontalière, nous martelons le message d'un destin d'Iparralde lié à nos frères du Sud, à tous les niveaux. Nous suivons des dossiers transfrontaliers concrets avec des acteurs de la vie politique, culturelle ou économique d'Iparralde.

## Nous voulons rattacher l`économie d`iparralde au monde

Etant le secteur abertzale le plus européiste , nous voulons montrer à la société d'Iparralde, notre immersion naturelle dans le monde contemporain. Basques, certes, mais ouverts au monde.

Vous êtes les bâtisseurs d'un modèle économique exemplaire. Nous voulons donc pénétrer le monde économique d'Iparralde, en l'informant sur l'expérience d'Hegoalde afin de faire évoluer les mentalités locales.

Ces axes de travail ne nous font pas oublier les autres thèmes politiques. Des commissions sont donc nées dans les domaines de l'euskara, de la culture basque, du social ou de l'institutionnel. A moyen terme, en utilisant notre image, en lançant des initiatives et en exposant nos propositions, nous espérons obtenir l'adhésion de la société d'Iparralde. Le risque majeur du petit frère de l'alderdi n'est il pas de grandir.

Bainan, hori ez da oraindik aski berezitzeko, mugimendu zabal hau ez baita alderdi berezi bati identifikatua, baizik eta mugimendu euskalzale eta abertzale bezala.

Beraz, gure berezitasuna landu behar dugu. Irudiaren aldetik, Hegoaldeko mugimendu bezala ikusia gira bere alde txarrekin, beste eskualdeko alderdia izanez eta ez hemengoa, bainan ere, bere alde baikorrekin, alderdiak irudi baikorra duen hainbat gizarte taldeetan, adibidez.

Beraz, gure izaitea baliatuz, pundu baikorrrak jorratu nahi ditugu. Euskal Herriko bi aldeetan izanez, mugaz gaindiko gaia lantzen dugu, azpimarratuz, Iparraldeko geroa segurtatzeko, Hegoaldeko anaiarekin lan egin behar dugula, alor guzietan. Egitasmo konkretuak lantzen ditugu Iparraldeko proiektu eramaileekin, bai politika, kultura edo ekonomia mailetan.

## Iparraldeko ekonomia munduarekin lotu nahi dugu

Europazaleena giren alderdi abertzalea izanki, erakutsi nahi dugu ere Iparraldeko gizarteari, gaurko munduan murgilduak girela, euskaldunak, bainan idekiak munduari.

Zuek, Hegoaldean, ekonomi azkar baten eraikitzaileak izanki, Iparraldeko ekonomia munduarekin ere lotu nahi dugu, Hegoaldeko esperientsiaren berri emanez, hemengo kargudunen gogoa aldarazteko.

Lan ardatz berezi horietan sartuz, ez dugu ahantzi nahi ere beste gaiak eta horretarako batzordeak sortu ditugu, euskara eta euskal kultura mailan, giza gaietan, edo ere instituzio alorrean. Epe ertain batean, irudi baikor batekin jarraituz, ekimenak bultzatuz eta proposamenak plazaratuz, espero dugu.




* Bretainiak ere

## Baietz dio europar proiektu bateratuari.

Sophie ta Philippe bretainiarrak dira eta europar proiektuak Bretainian ongizatea hobetuko duela uste dute.

Ongizate betea lortzeko eta gizartean bazterketa saihesteko ekinbideak bultzatuko dira-eta.

* Bretaña también dice

## Sí al proyecto común europeo.

Sophie y Philippe creen que el proyecto europeo favorecerá el aumento del bienestar en Bretaña, por tener entre sus objetivos aplicar una mejor política social europea.

Porque se impulsarán iniciativas dirigidas al logro del pleno empleo y a luchar contra la exclusión social.

Europa gehiago... Euskadi gehiago.    Más Europa. Más Euskadi.




* Córcega también dice
## Sí a la ciudadanía europea.

Pascal es corso y cree que ser ciudadano europeo es positivo porque supone más libertad e igualdad para todos.

Sin renunciar a su origen y nacionalidad, tanto él como su pueblo tendrán nuevas oportunidades para alcanzar un mayor desarrollo.

* Korsikak ere
## Baietz dio europar hiritartasunari.

Korsikarra da Paskual eta Europako hiritar izatea onuragarria dela uste du, askatasun eta berdintasun gehiago ekarriko dituelako.

Jatorriari eta herritasunari uko egin gabe, ongizate hobea lortzeko aukera berriak izango dituzte berak eta bere herriak ere.

Europa gehiago... Euskadi gehiago.     Más Europa. Más Euskadi.




* Catalunya también dice
## Sí a nuestra lengua.

Gemma piensa que el catalán debe entrar a formar parte del conjunto de lenguas oficiales europeas.

Porque es el idioma representativo de un pueblo europeo, como también lo son su identidad y cultura. Y ella se siente con el derecho a ser entendida y escuchada.

* Kataluniak ere
## Baietz dio gure hitzkuntzari.

Katalanak ere Europako hizkuntza ofiziala izan behar duela uste du Gemmak.

Herri europar baten hizkuntza delako, bere nortasun eta kulturarekin batera. Eta ulertua eta entzuna izateko eskubidea duela deritzo.

Europa gehiago... Euskadi gehiago.     Más Europa. Más Euskadi.




* Galesek ere

## Baietz dio mugarik gabeko europari.

John du izena, galestarra da eta berak uste du Europa indartzeko ahaleginak guztiontzako bake, garapen eta egonkortasun bermea ekarriko duela.

Horrela, bere lanpostuari eusteko eta bere seme-alaben etorkizuna indartzeko, bermea izango duela irizten dio.

* Gales también dice

## Sí a una Europa sin fronteras.

Se llama John, es de Gales y piensa que todo esfuerzo dirigido a reforzar la idea de Europa será garantía de paz, desarrollo y estabilidad para todos.

De esta forma, cree que tendrá mayores garantías para conservar su puesto de trabajo y asegurar así el futuro de sus hijos.

